

Boletín

Informativo



Agerkaria

Informazio

HEMEN GARA BERRIZ...



DE VUELTA...

Exposición
Juanjo Novella
"Territorios"

La nueva ley
del estatuto
del trabajador
autónomo

Jornada
extraordinaria:
Hacia la primera
ley civil vasca

Aparteko
jardunaldia:
Lehen euskal
lege zibilerantz

Langile
autonomoaren
estatutuaren
lege berria

Erakusketa
Juanjo Novella
"lurraldeak"

¿Y si tuviera
TODO a su
alcance?

El Derecho *Internet*

Todo lo que necesita en legislación, jurisprudencia, doctrina, bibliografía, formularios... **y ahora más:**

- + **Servicio:** Servicio de Alertas El Derecho.
- + **Precisión:** Asistente Inteligente de Búsqueda®.
- + **Potencial:** Fondo Jurisprudencial, Buzón, Expedientes...

¡NOVEDAD!

Todo un universo de conocimiento **en una única suscripción**

El Derecho Editores, todo el saber.

La obra de uso más extendido en el ámbito de la Administración de Justicia.



www.elderecho.com
902 44 33 55

Septiembre parece el mes hábil por antonomasia. Aquel que nos devuelve a las realidades ajenas, aquellas a las que, por nuestra profesión, debemos dar solución. Aquellas que conforman nuestra vocación y que articulan parte de nuestras preocupaciones. Y lo iniciamos quizá con la conciencia de no haber abandonado aquellas del todo a lo largo de Agosto, que aún así es nuestro único periodo de verdadero reposo a lo largo del año. No es la nuestra, profesión y vocación de la que nos podamos desprender por el mero transcurso de unas fechas, de unos días. Siempre está nuestra condición de abogadas y abogados pendiente como una espada de Damocles, pues estamos destinados a resolver conflictos, a dar solución a problemas, y éstos no descansan por muy verano que sea. Ello hace que Septiembre tenga un cierto aire de regreso a normalidad, a la rutina de la tensión diaria, que volvamos al despacho que nos recibe con ese aire de viejo conocido del que nos despedimos sabiendo que estamos abocados a reencontrar. Y nada parece haber cambiado excesivamente a nuestro alrededor. Quizá porque no lo ha hecho. Las disquisiciones y discusiones sobre la situación de la Justicia, sobre sus dificultades, como el inmortal debate sobre los medios con los que contamos para su desarrollo y para ser un instrumento ágil y efectivo en manos de la sociedad a la que sirve, la sempiterna porfía sobre la renovación de cargos del Consejo General del Poder Judicial, la, al parecer, imparable escalada de violencia contra la mujer que no aparenta guardar reposo, sin que las medidas adoptadas puedan darle cumplida terminación. Todas ellas vuelven con renovado énfasis, pero no han variado sustancialmente desde que quedaran aletargadas por llegada del plúmbeo y nuboso Agosto del que hemos disfrutado este año. Sin embargo, Septiembre es tradicionalmente un mes repleto de novedades y expectativas fundadas en el empeño, precisamente, de dar adecuado colofón a todas estas cuestiones. Al fin y al cabo, como decía antes, somos un colectivo que se fundamenta sobre la misión de solventar conflictos, sean estos pequeños de particulares, o afecten los mismos a fundamentales principios que sustentan a nuestra sociedad. En cierto modo, es nuestro sino y estamos avocados a servirle.

Iraila hilabete baliadun nagusia dela dirudi. Irailean errealitatera bueltatzen gara eta, gure lanbidea dela-eta, konpondu behar ditugun egoerak berriz itzultzen dira. Gure bokazioa oinarritu eta gure arduren iturri diren egoerak. Agian, ardura horiek abuztu osoan ez ditugu alde batera utzi, urte osoan atsedeen hartzen dugun hilabete bakarra izan arren. Gure lanbidea eta bokazioa ezin ditugu alde batera utzi data jakin bat, egun jakin bat izan arren. Gure abokatu-izaera beti agerian daukagu, Damoklesen ezpataren antzera, gatazkak ebatzi edo arazoak konpondu behar ditugulako; eta horiek uda izan arren ez dute atsedeenik hartzen. Horren eraginez, irailan normaltasunera bueltatzen gara, tenkaduren egunerokotasunera. Bulegoak aspaldiko ezagunak bagina legez hartzen gaitu, uda aurretik agur esan arren berriro ere elkartuko garela dakigu eta. Eta gure inguruan guztia berdin dagoela dirudi. Agian ez da ezer aldatu eta. Justiziaren egoerari buruzko eztabaidak eta gorabeherak, justiziaren zailtasunak, gure lanbidean aritzeko eta justizia gizartearentzat tresna arin eta eragingarria izateko ditugun bitartekoei buruzko eztabaida etengabea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko karguak berritzearen inguruko eztabaida, hartutako neurriak gorabehera atsedeenik hartzen ez duen emakumeen aurkako indarkeriaren gorakada. Horiek guztiak indar berriarekin itzultzen dira, baina ez dira asko aldatu, aurtengo abuztu lainotsu eta berun-kolorekoa igaro ondoren. Hala ere, iraila berrikuntzaz eta itxaropenez betetako hilabetea da, arazo horiek guztiak behar den moduan konpontzeko ahalegina oinarri hartuta. Azken buruan, lehen esan dudan moduan, gatazkak ebatzeko eginkizuna duen kolektiboa gara, gatazka horiek txikiak eta partikularrenak izan arren, edo gure gizar-tearen oinarriko printzipioak ukitu arren. Nola edo hala, gure patua da, eta horretarako lan egin behar dugu.



ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORIO DE VIZCAYA

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

**Consejo de Redacción /
Erredakzio-kontseilua**
Aitor Urcelay Goiri,
J. Ignacio Martínez Ruiz

BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA

Depósito Legal / Legezko gordailua: 2.069/1987

Colaboradores / Lankideak

César Gallastegi Aranzábal,
Idoia Manzarraga Zamalloa,
Alberto Martínez Ruiz,

Ignacio Alonso Errasti,
Lorena Aguirregabiria
Castresana



www.bbkk.es

Gestión de Carteras

Un nuevo valor para su patrimonio

El objetivo de BBK siempre ha sido aportar valor añadido a la gestión de su patrimonio, asesorándole con profesionalidad, ofreciéndole los mejores productos del mercado y obteniendo la mejor rentabilidad financiero-fiscal. Como cliente de **BBK Banca Personal**, usted tendrá a su disposición su profesional de confianza que canalizará todas las sinergias de los equipos especializados de BBK, facilitando en cada momento una planificación financiera y fiscal totalmente adaptada a sus necesidades y a las características de su patrimonio.

Banca Personal

bbk =

NOTICIAS



6

BERRIAK

NUEVAS COLEGIADAS:
LAS SOCIEDADES PROFESIONALES

18

ELKARGOKIDE BERRIAK:
LANBIDE SOZINETATEAK

LA NUEVA LEY DEL ESTATUTO
DEL TRABAJADOR AUTÓNOMO

21



LANGILE AUTONOMOAREN
ESTATUTUAREN LEGE BERRIA

JORNADAS

JORNADA EXTRAORDINARIA:
HACIA LA PRIMERA LEY CIVIL VASCA



25

JARDUNALDIAK

APARTEKO JARDUNALDIA:
LEHEN EUSKAL LEGE ZIBILERANTZ

EXPOSICIÓN

JUANJO NOVELLA
"TERRITORIOS"

30



ERAKUSKETA

JUANJO NOVELLA
"LURRALDEAK"

BIBLIOTECA COLEGIAL

32


BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

NOVEDADES LEGISLATIVAS

34

LEGEGINTZA BERRITASUNAK

**EL SUPLEMENTO
CULTURAL**



36

**KULTUR
ERANSKINA**

AGUR PEDRO... GERO ARTE!

José Bustamante Bricio

Abogado / Abokatua

Berez serioa zen, baina umore onekoa. Errespetua eta konfiantza apaltasun handiz ezartzen zituen. Burua ondo hornituta eta ondo antolatuta zuen. Guztiek maite genuen, miretsi egiten genuen: gaur egun esaten den moduan, erreferentea zen.

Pedro Rodríguez Sahagún, Tomás Rodríguez Cabrera jaunaren leinu juridikoaren oinordekoa, Avilan jaio zen, "kantuen eta santuen lurtean", eta bere lurrarekiko abegitasun berezia sentitzen zuen: hori egiazatzeko, nahikoa zen "Sonsoles" eta "La Santa" izenak aipatzea, bertako biztanleek Teresa de Cepeda y Ahumadari deitzeko erabiltzen dituzten izenak, edo "La gloria de Don Ramiro" ahotan erabiltzea.

Bilbon, Deustuko Unibertsitateko Komertzialean ikasi zuen, Aita Bernaolaren makila zorrotzaren gidaritzapean, eta aldi berean, Valladolideko Unibertsitatean Zuzenbideko lizentziatura eskuratu zuen, hori guztia mende honetako berrogeiko hamarkada zailean.

Oso gazte ezagutu genuen, unibertsitateko gelatik atera berritan, gu gure ikasketak amaitzeko puntuan geundela. Antzinako Merkataritza Kodetik ihes egindako sozietateen inguruan Sozietate Anonimoen lehen Legea aldarrikatu zen urtean geuden. Merkataritza Zuzenbideko ikasgaiak argi eta modu didaktikoan azaldu zizkigun.

Beti agertu genion errespetua galdu gabe, gure arteko beste bat izan zen. Guk ospatzen genituen gertakizun guztietan Pedro eta Maribé emaztea gure artean egoten ziren: zilarrezko eta urrezko ezteiak, omenaldiak, Lur Santura egindako erromesaldi ahaztezina. Gutako bategen Palestinara bidaiatzeko bi modu zeudela esaten zuen: edo Israelera turista moduan joatea; edo Lur Santura erromesaldi joatea. Gure bidaia erromesaldia izan zen. Pedrok gogo handiz bizi izan zuen, modu ahaztezinan. Gure topaketak ospetsu egiten zituen beti: jantzia, zintzoa eta orekatua zelako miresten zuten.

Trantsizioko urteetan bizitza politikokoan parte hartzeari ez zion muzin egin, eta hori zuhurtziaz egin zuen, benetakoa demokrata baten moduan, beti bezala, gauzak ondo eginez, tolerantzia eta ulermena erakutsiz.

Bizimodu osoan fede katoliko sakon eta ereduzkoa izan zituen, handikeriarik eta disimulurik gabe, eta horixe transmititu zien bere ingurukoei. Legelari bikaina izan zen, eraginkorra. Senar ona, bost seme-alabaren aita, eta 16 ilobaren eta birloba baten aitona. Hutsune handia utzi digu, baina bizitzako maila guztietan gure erreferentea izaten jarraituko du.



ADIOS PEDRO... ¡HASTA LUEGO!

Era de natural serio, pero no carente de buen humor. Imponía con sencillez respeto y confianza. Tenía una cabeza no sólo bien amueblada sino bien ordenada. Querido por todos, le admirábamos: era, como actualmente se dice, un referente.

Pedro Rodríguez Sahagún, el primogénito de la saga jurídica de Don Tomás Rodríguez Cabrera, había nacido en Ávila, "tierra de cantos y de santos" por la que sentía singular afecto: no había más que pronunciar los nombres de "Sonsoles", o de "la Santa" como los abulenses llaman a Teresa de Cepeda y Ahumada, o mentar "La gloria de Don Ramiro", para comprobarlo.

Había arraigado en la noble Villa de Bilbao, donde con brillantez cursó en la Comercial Deustense su carrera bajo la férula exigente del Padre Bernaola al mismo tiempo que se licenciaba en Derecho por la Universidad pinciana, todo ello en la difícil década de los cuarenta del siglo precedente.

Le conocimos muy joven, recién salido de las aulas universitarias, nosotros a punto de concluir en las mismas nuestra carrera. Era el año en que se promulgó la primera Ley de Sociedades Anónimas, esas sociedades escapadas del antañón Código de Comercio. Nos explicó las lecciones de Derecho Mercantil de manera clara y didáctica.

Pronto fué, sin mengua del respeto que siempre le guardamos, uno más de los nuestros. No hubo acontecimiento que festejáramos en el que Pedro y Maribé su mujer, no estuvieran presentes: bodas de plata y oro promocionales, homenajes, la inolvidable peregrinación a Tierra Santa. Decía uno de los nuestros que había dos modos de viajar a Palestina: o bien ir de turista a Israel; o bien ir de peregrino a Tierra Santa. Nuestro viaje fué de peregrino. Pedro lo vivió intensamente, de manera inolvidable. Siempre prestigiaba nuestros encuentros: era venerado por su competencia, honradez y equilibrio sensato.

No rehuyó tomar parte en la vida política en los años de la Transición y lo hizo con prudencia, en clave de auténtico demócrata, dando, como siempre, ejemplo de buen hacer, de tolerancia y comprensión.

Mantuvo toda su vida una fé católica profunda y ejemplar sin alardes ni disimulos, que transmitió a los suyos. Excelente letrado, eficiente. Buen esposo y padre de cinco hijos y buen abuelo de 16 nietos y un biznieto. Nos deja un vacío difícil de colmar, pero seguirá siendo nuestro referente en todos los órdenes vitales.

PREMIO INTERNACIONAL DE SEGUROS JULIO CASTELO MATRÁN

La Fundación Mapfre convoca la cuarta edición del premio internacional Julio Castelo Matrán. El galardón está destinado a premiar trabajos científicos originales e inéditos que traten sobre alguna de las facetas jurídicas, económicas o técnicas del seguro en cualquiera de sus ramos y modalidades y que hayan sido realizados con posterioridad a junio de 2006.

El premio está dotado con 35.000 euros y el plazo de presentación de trabajos en esta convocatoria, cuyo ámbito se extiende a España, Portugal e Iberoamérica, estará abierto hasta el 31 de mayo de 2008. Para consultar las bases de la convocatoria: www.fundacionmapfre.com.

I PREMIO ALICIA HERRERA DE ARTÍCULOS JURÍDICOS SOBRE MUJER Y DERECHO

La Asociación de Mujeres Juristas Themis contando con el patrocinio de la editorial El Derecho convoca el I premio de artículos jurídicos sobre Mujer y Derecho. El plazo de presentación de los artículos finalizará el 31 de octubre de 2007. Para más información: themis@mujeresjuristasthemis.org
www.mujeresjuristasthemis.org

JULIO CASTELO MATRAN ASEGURUEN NAZIOARTEKO SARIA

Mapfre Fundazioak Julio Castelo Matrán nazioarteko sariaren laugarren edizioa antolatu du. Sariaren bidez, aseguruaren alderdi juridiko, ekonomiko edo tekniko-
ren bat aztertzen duten lan zientifiko original eta ezezagunak saritu nahi dira, aseguruaren edozein adarri eta modalitateri dagokienez. Lan horiek 2006ko ekainaren ostean egindakoak izan behar dira.

Saria 35.000 eurokoa da, eta deialdi honetan, lanak aurkezteko epea 2008ko maiatzaren 31a arte irekita dago. Sariaren esparrua Espainia, Portugal eta Iberoamerika ere zabaldua dago. Deialdiaren oinarriak ikusi nahi izanez gero, jo hona: www.fundacionmapfre.com.

EMAKUMEZKOARI ETA ZUZENBIDEARI BURUZKO ARTIKULU JURIDIKOEN ALICIA HERRERA I. SARIA

Themis Emakume Juristen Elkarteak, El Derecho argitaletxearen babesarekin, Emakumezkoari eta Zuzenbideari buruzko artikuluko artikulu juridikoen I. saria deitu du. Artikuluak aurkezteko epea 2007ko urriaren 31an amaituko da. Argibideetarako: themis@mujeresjuristasthemis.org
www.mujeresjuristasthemis.org

NUEVA OBRA DONADA AL COLEGIO

Luis Candaudap, parte de cuya obra tuvimos ocasión de contemplar en la sala de exposiciones colegial esta pasada primavera, ha donado recientemente al Colegio una de las obras expuestas, momento que recoge la fotografía.



GURE BAZKUNARI BESTE LAN BAT OPARITU DIOTE

Joan den udaberrian, Elkargoko erakusketen aretoan, Luis Candaudapen lan batzuk ikusteko aukera izan genuen. Egile horrek erakusketan erakutsitako lanetako bat eman dio Elkargoari. Argazkian une hori agertzen da.

EUSKAL HERRIKO FORU ZUZENBIDE ZIBILA AZTERTZEKO TALDEA

Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila Aztertze Taldeak lankide guztiei jakinarazi nahi die Zuzenbidearen Euskal Akademiak idatzitako Euskal Lege Zibil berriaren aurreproiektua Eusko Jaurlaritzan aurkeztu dela oraintsu.

Joan den ekainaren 20an, jendaurreko lehen aurkezpena egin zen gure Elkargoko ekitaldi-aretoan.

Era berean, jakinarazi nahi dizuegu datorren azaroan jardunaldi bat egingo dela, hain zuzen ere, aurreproiektuan datozen erakunde nahiz tresna juridikoak eta gehitutako berrikuntza nagusiak aztertu eta eztabaidatzeko. Jardunaldi horretan Talde honek eta Zuzenbidearen Euskal Akademiak deitutako adituek parte hartuko dute, eta guztiok parte hartzera gonbidatuta zaudete.

FORO GAZTEA ETA ARRAZOIZKO ZALANTZAK

Ekainetik foro juridiko berria eskura daukagu, "Foro Gaztea". Bertan sartzeko, www.abogacivasca.net orrialdera jo behar da (Legelarien Euskal Kontseiluaren web orria), gune pribatura, foroan atalera.

Abokatu gazteak parte hartzeko gonbidatuta zaudete, lanbidearen eguneroko jardunean "arrazoizko zalantzak" planteatzen zaizkizue eta.

Arazoa azal dezakezue, eta esperientzia bera edo antzekoa duten lankideek orientazioen bat eman dezaketek euren iritzien bidez.

abogacivasca.net web orriko gune pribatuan sartzeko alde aurretik erregistratu egin behar da, gako honekin: erabiltzailea= a04800.... (+ elkargokide zenbakia) eta pasa-hitza (lau karaktere edo gehiago).

Orain arte, Bizkaiko Abokatu Gazteen Elkartearen barruan "arrazoizko zalantzak" posta elektronikoz planteatu eta erantzuten ziren. "Foro Gaztea" erabiltzea abantaila handia dela uste dugu; izan ere, planteatutako zalantzak eta erantzunak Foroan gordetzen dira, eta edozein lankidek kontsultatu, berrikusi eta gaurkotu ditzake.

Hori dela eta, lerro hauen bidez, abisua eman nahi dizuegu guztioi: badakizu zein den foro juridiko berriaren helbidea; zure esku dago helbide hori erabilgarria izatea edo ez. Busti zaitze!

GRUPO DE ESTUDIO DEL DERECHO CIVIL FORAL DEL PAIS VASCO

El Grupo de Estudio desea informar a todas las compañeras y compañeros que recientemente ha sido presentado ante el Gobierno Vasco un Anteproyecto de nueva Ley Civil Vasca redactado por la Academia Vasca de Derecho.

El pasado 20 de junio se realizó una primera presentación pública de su elaboración en el salón de actos de nuestro Colegio.

Asimismo, os anunciamos que durante el próximo mes de noviembre se celebrará una Jornada de Estudio y Debate sobre las diversas instituciones e instrumentos jurídicos civiles que se recogen así como sobre las novedades que se introducen, de la mano de ponentes y especialistas en dicha materia que serán convocados por este Grupo de Estudio y por la Academia Vasca de Derecho, a la que ya desde ahora estáis invitados a participar.

FORO JOVEN Y DUDAS RAZONABLES

Desde el mes de junio tenemos a nuestra disposición un nuevo foro jurídico, el "Foro Joven", al cual se puede acceder en la página www.abogacivasca.net (página web del Consejo Vasco de la Abogacía) dentro de la zona privada, en el apartado de Foros.

Estáis invitados/as a participar quienes seáis jóvenes abogados/as porque se os siguen planteando "dudas razonables" en el ejercicio diario de la profesión.

Podéis exponer la cuestión, y aquellos compañeros/as que puedan dar una orientación desde su igual o similar experiencia pueden ir aportando sus opiniones..

Recordamos que para acceder a la zona privada de la web abogacivasca.net es necesario registrarse previamente con la siguiente clave: usuario= a04800.... (+ número de colegiado/a) y contraseña (de cuatro o más caracteres).

Hasta ahora, dentro de la Agrupación de Jóvenes Abogados de Bizkaia, veníamos planteando y respondiendo "dudas razonables" vía mail. Pensamos que, además de la anterior, utilizar la vía del "Foro Joven" supone una ventaja añadida; puesto que las dudas cuestionadas y sus respuestas quedan almacenadas en el Foro, para poder ser consultadas, revisadas y actualizadas por cualquier compañero/a en cualquier momento.

Por ello, desde estas líneas lanzamos un aviso a navegantes y grumetes: Conoces la dirección del nuevo foro jurídico; lo útil que resulte depende de ti. ¡Mójate!

FONDO DE SOLIDARIDAD

El pasado mes de julio fueron aprobadas por la Junta de Gobierno las prestaciones que otorga el Colegio a cargo del Fondo de Solidaridad.

Como ya conocéis por la información remitida a todos los colegiados por medio del Boletín, a finales de mayo se abrió el plazo de solicitudes de prestación con cargo al nuevo Fondo de Solidaridad, puesto en marcha en sustitución de la Obra Social, para todas aquellas personas que estimasen podrían ser beneficiarias conforme al Reglamento que establece las condiciones y requisitos necesarios.

Fueron 42 la solicitudes de ayuda presentadas, habiéndose aprobado por parte de la Junta de Gobierno 14 prestaciones, previo examen detallado de todas las recibidas y previo informe de la Comisión de Supervisión del Fondo, órgano de reciente creación que viene establecido en el Reglamento que lo regula.

Este año, al haberse iniciado las prestaciones en el mes de Julio, tienen una validez limitada de seis meses, hasta el mes de diciembre del año en curso.

Tanto para los solicitantes como para el propio Colegio, esta ha sido una primera experiencia que nos ha servido para tener un conocimiento más adecuado sobre las necesidades de nuestro colectivo, sus jubilados, viudas y huérfanos. Igualmente ha servido para que se realicen unos ajustes en ciertos aspectos del reglamento que regula este Fondo, modificaciones que están ya en vigor para la convocatoria del año próximo.

Con el fin de establecer las **prestaciones para el año 2008**, se inicia el período de admisión de solicitudes hasta el próximo día **30 de noviembre de 2007** inclusive.

Tanto las solicitudes como el reglamento que establece el funcionamiento y requisitos (ya adaptado a las cuantías para este nuevo año), puedes obtenerlos en las oficinas colegiales de Rampas de Uribitarte 3-1° o a través de la web del Colegio www.icasv-bilbao.com, en el apartado "impresos".



ELKARTASUN FUNTSA

Gobernu Batzordeak joan den uztailean onetsi zituen Bazkunak Elkartasun Funttsaren kargura ematen dituen prestazioak.

Elkargokide guztiek dakizuenez (Aldizkariaren bidez jasotzen duzuen informazioa dela bide) joan den maiatzaren amaieran prestazio-eskaeren epea ireki zen, Elkartasun Funtts berriaren kargura. Hain zuzen ere, Elkartasun Funtts hori Gizarte Ekintzaren orde zuzari zen abian, beharrezko baldintzak eta betekizunak ezartzen dituen erregelamenduaren arabera onuradunak izan daitezkeen pertsona guztiei begira.

42 laguntza-eskaera aurkeztu ziren, eta Gobernu Batzordeak 14 prestazio onetsi zituen. Horren aurretik jasotako eskaera guztiak zehatz aztertu ziren, eta Funttsaren Gainbegiratzeko Batzordeak txostena egin zuen. Azken organo hori oraintsu sortu da, Funttsa arautzen duen Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz.

Aurten, prestazioak uztailean hasi direnez, sei hileko baliagarritasun mugatua dute, aurtengo abendua arte.

Eskatzaileentzat eta Bazkunarentzat lehen esperientzia izan da hau, eta horri esker gure kolektiboaren erretirodunen, alargunen eta umezurtzen beharrezkoen berri zehatzagoa izan dugu.

Era berean, Funttsa arautzen duen Erregelamenduko alderdi batzuetan doikuntza batzuk egin dira. Aldarazpen horiek indarrean daude datoren urteko deialdiari begira.

2008rako prestazioak ezartzeko asmoz, eskaerak onartzeko epea irekita dago **2007ko azaroaren 30a** arte, egun hori barnean hartuta.

Eskaera zein funtzionamendua eta betekizunak ezartzen dituen erregelamendua (aurtengo zenbatekoetara egokituta dago) elkargoaren bulegoetan eskuratu ditzaitezke (Uribitarte erranplak, 3-1), edo, bestela, web orrialdearen (www.icasv-bilbao.com) "inprimakiak" atalera jo dezakezu.

TABLÓN DE ANUNCIOS / IRAGARKI-TAULA

SE ALQUILA DESPACHO. INDAUTXU. Edificio de oficinas. 60 m². Plaza Garaje opcional. Ideal para Abogado, Procurador, Economista. Calefacción central, conserje. Recepción y 2 despachos. Tf. 629 52 19 42.

Abogada **ALQUILA DESPACHO INDIVIDUAL** en oficina compartida, en el centro de Barakaldo. Teléfono: 94 437 38 67 / 678 29 76 79.

SE ALQUILA DESPACHO. Centro de Bilbao, en oficina con otros abogados. Recepción visitas, limpieza, calefacción, ADSL incluidos. Para abogado, procurador, economista. Tf. 946 611 607.

SE ALQUILA DESPACHO. Centro de Bilbao. Servicio de recepción, limpieza, calefacción y aire acondicionado. Para abogado, procurador o economista. Precio económico, todo incluido. Tfs. 686 65 13 69; 610 03 33 12; 94 423 11 01.

BAZKUNEKO ZERRENDAK BERRIZTATZEA: KONKURTSOKO ADMINISTRATZAILEAK ETA KONTULARI-BANATZAILEAK

2008rako konkurtsoko administratzaileen eta kontulari-banatzzaileen zerrendak berriztatuko direnez, aurretik izena eman ez duten eta zerrenda horretan agertu nahi duten guztiek Bazkuneko bulegoetan jakinarazi behar dute. Zerrenda bakoitzeko idazki bat igorri behar da aurtengo **abenduaren 14a** baino lehen.

Haek dira zerrendan agertzeko betekizunak: konkurtsoko administratzaileen kasuan, bost urte lanbidean modu eragingarrian jarduten, eta kontulari-banatzzaileen kasuan, bi urtez jardunean edo bat baino gehiago, Praktika Juridikorako Eskolako diploma izanez gero.

Era berean, eta iaz egin zen moduan, konkurtsoko administratzaileen zerrendetan daudenei ez zaie igorriko Erantzukizun Zibileko Aseguruari dagokion ordainagiri berezirik; izan ere, Elkargoak lanbide-jardueran eragindako balizko kalte-galerei aurre egiteko kontratatuta duen poliza arruntak kontingentzia hori jasotzen du orain, 120.000€-ko mugaraino, gainerako gaietarako 350.000€-ko muga dagoen arren.

BIZITZA ASEGUAREN ERREGISTROAK 24.000 ZIURTAGIRI INGURU IGORRI DITU LEHEN HILABETEAN

- Ziurtagiri horien ehuneko 15i baino gehiagori (zehatz esanda, 3.745) modu positiboan erantzun zaie Erregistroan, hau da, kontratu bat edo gehiago eurekin dakarte.
- 936 informazio-ohar igorri dira, aseguratuak eurek eskatuta, erregistroan dauden datuetara sartzeko, horiek zuzendu, ezeztatu eta aurkartzeko eskubidea egikaritzeko.
- Orain arte 50.243.512 kontratu gehitu dira Erregistroko datu-basera, 22.521.940 pertsonari dagozkionak (bizi direnak edo hildakoak, espainiarrak edo atzerritarrak, gutxienez bizi-tza-aseguruaren kontratu bat dutenak).

Igorritako ziurtagiri gehienak notario-bulegoetako eskarien bidez formalizatu dira (13.113). Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiko Erregistroak, Justiziaren Estatu Idazkaritzaren menpe dagoenak, 4.719 ziurtagiri igorri ditu; Valentziakoak, 920 eta Bartzelonakoak, 724. Horien ostean, Zaragoza (477), A Coruña (450) eta Granada (442) daude. Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzak aldi horretan 283 ziurtagiri igorri ditu.

RENOVACIÓN DE LISTADOS COLEGIALES: ADMINISTRADORES CONCURSALES Y CONTADORES-PARTIDORES

Con motivo de la renovación para el próximo año 2008 de las listas colegiales de Administradores Concursales y Contadores-Partidores, todo aquel que no se haya apuntado con anterioridad y quiera formar parte de las mismas, deberá comunicarlo en las oficinas colegiales remitiendo un escrito por cada una de las listas en las que interese ser incluido **antes del 14 de diciembre** del corriente año.

Os recordamos que los requisitos para poder formar parte de las listas son: en el caso de los Administradores Concursales, cinco años de ejercicio efectivo de la profesión, y para Contadores-Partidores, más de dos años de ejercicio o más de uno si se está en posesión de diploma de Escuela de Práctica Jurídica.

Asimismo y como ya se hizo el pasado año, a quien forme parte de las listas de Administradores Concursales no se le girará desde el Colegio un recibo especial en concepto de Seguro de Responsabilidad Civil, dado que la póliza ordinaria que tiene el Colegio contratada para cubrir los posibles perjuicios causados por la actividad profesional, ahora sí cubre dicha contingencia, si bien hasta 120.000€, en vez del límite de 350.000€ existente para el resto de los asuntos.

EL REGISTRO DE SEGUROS DE VIDA CIERRA SU PRIMER MES EN FUNCIONAMIENTO CON CERCA DE 24.000 CERTIFICADOS EMITIDOS

- Más del 15 por ciento de estos certificados (concretamente 3.745) han sido respondidos de forma positiva por el Registro, es decir, llevan aparejada la existencia de uno o más contratos.
- Se han emitido 936 notas informativas, requeridas por los propios asegurados para ejercer su derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición, en relación con sus datos incluidos en el registro.
- Hasta el momento se han volcado 50.243.512 contratos en la base de datos del Registro, que pertenecen a 22.521.940 personas (vivas o fallecidas, españoles o extranjeros, con, al menos, un contrato de seguro de vida).

El mayor número de certificados emitidos se ha formalizado a través de peticiones de oficinas notariales, con 13.113. La sede del Registro de la Dirección General de Registros y Notariado (DGRN), que depende de la Secretaría de Estado de Justicia, ha emitido 4.719 certificados, seguida de Valencia, con 920 y Barcelona, con 724. A distancia les siguen Zaragoza (477), La Coruña (450) y Granada (442). La Subdelegación del Gobierno en Bizkaia ha emitido en ese periodo 283 certificados.

CONCEDIDA LA NACIONALIDAD ESPAÑOLA A 30 MIEMBROS DE LA COMUNIDAD DE JUDÍOS SEFARDÍES

- 15 tienen nacionalidad turca y 15 venezolana, y aportan como causa excepcional el mantenimiento de las costumbres y el idioma español.

A propuesta del ministro de Justicia, Mariano Fernández Bermejo, el Consejo de Ministros ha concedido la nacionalidad española a 30 personas, 15 de ellas de nacionalidad turca y 15 venezolana, cuya característica es ser judíos de origen sefardí.

Todos ellos alegan y han demostrado como circunstancias excepcionales estar vinculados con España por su pertenencia a la comunidad de judíos sefardíes, con el consiguiente reflejo cultural en sus costumbres y el mantenimiento del idioma español.

Asimismo, el Consejo de Ministros también ha aprobado mediante otro Real Decreto la concesión de la nacionalidad española a la ciudadana británica Josette Naime Calil. Nacida en Nigeria, tiene directa relación con el Reino de España por su pertenencia a la histórica Casa del Príncipe Czartoryski de Borbón, hijo de la infanta de España Doña Dolores de Borbón y Orleans y primo hermano de S.A.R. Juan Carlos I.

La nacionalidad española se adquiere por carta de naturaleza, otorgada discrecionalmente por Real Decreto, cuando en el interesado concurren circunstancias excepcionales, después de tramitar un expediente para cada caso particular.

JUDU-SEFARDIEN ERKIDEGOKO 30 KIDERI ESPAINIAR NAZIOTASUNA EMAN ZAIE

- 15ek turkiar naziotasuna dute eta 15ek Venezuelakoa. Salbuespen-arrazoi moduan Espainiako ohiturak eta hizkuntza gordetzea aipatu dute.

Mariano Fernández Bermejo Justizia ministroak proposatuta, Ministroen Kontseiluak espainiar naziotasuna eman die 30 herritarri. 15ek turkiar naziotasuna dute eta 15ek Venezuelakoa. Guztiak juduak dira, eta jatorri sefardía dute.

Guztiek alegatu dute eta salbuespen-inguruabar moduan egiaztatu dute Espainiarekin lotura dutela, judu-sefardien erkidegokoak direlako, eta beraz, Espainiako ohiturak eta hizkuntza gorde dituztela.

Era berean, Ministroen Kontseiluak beste Errege Dekretu baten bidez onetsi du Josette Naime Calil britainiar herritarrari Espainiako naziotasuna ematea. Nigerian jaioa dago, eta Espainiako Erresumarekin lotura estua du, Czartoryski Borboikoa printzearen etxe historikoko kidea delako. Hain zuzen ere, Czartoryski Borboikoa printzea Dolores Borboi-Orleangoa Espainiako infantaren semea eta Joan Karlos I.a Espainiako erregearen lehengusu propioa da.

Espainiako naziotasuna herritar-agiriaren bidez eskuratzeko, Errege Dekretu bidez modu berezian emanda, interesdunak salbuespen-inguruabarrak dituenen, kasu partikular bakoitzerako espediente baten izapideak egin ondoren.

SELZUR BIZKAIA S.A.

SISTEMA DIGITAL MULTIFUNCION KM BIZHUB - 250

- 25 PAGINAS/MINUTO.
- Multitarea.
- De Serie IMPRESORA LASER RED PCL 5-6 / PostCript 3.
- De Serie ESCANER DE RED (Velocidad de 70 OPM)
- Resolución de 1.200 x 1.200 ppp.
- De Serie DOBLE CARA AUTOMATICA.
- Desde 71 €/mes (IVA no incluido)

KONICA MINOLTA
www.konicaminolta.es



Sistemas Digitales
Fax
Equipos Multifunción
Informática Profesional

SELZUR BIZKAIA, S.A.
C/ Luis Briñas, 3
48013 Bilbao
Tel.: 94 442 52 16 / 58 42
Fax: 94 442 58 43
e-mail: comercial@selzurvizcaya.com
www.selzurvizcaya.com

ESTATUKO ABOKATUTZAK EZ DU ONARTU ALDERDI POPULARRAK BERDINTASUN LEGEAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA

ARAUTEGIAREN ARABERA, HAUTESKUNDE-ZERRENDETAN SEXUEN ARABERAKO PARTE-HARTZEA %40KOA IZAN BEHAR DA GUTXIENEZ

- Konstituzioaren arabera, botere publikoek pertsonen eta horiek osatzen dituzten taldeen berdintasuna benetakoa eta eragingarria izateko baldintzak ezarri behar dituzte.
- Nazioarteko esparru juridikoak bizitza publikoan emakumezkoak eta gizonezkoak modu orekatuan egoteko beharra bermatzen du.

Estatuko Abokatutzak, Gobernuaren izenean, ez du onartu Diputatuen Kongresuko Alderdi Popularrak Gizonezkoen eta Emakumezkoen Benetako Berdintasunerako Lege Organikoaren aurka aurkeztutako konstituzio-aurkakotasun errekurtsioa (martxoaren 22ko 3/2007 LO).

Alderdi Popularrak aurkeztutako errekurtsioaren bidez Lege horrek hauteskunde-arautegira (Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoa) gehitutako artikuluen deuseztasun-adierazpena lortu nahi da. Artikulu horien arabera, hauteskunde orokorretako, Europako hauteskundeetako, hauteskunde autonomikoetako eta tokiko hauteskundeetako hautagai-zerrendak orekatuak izan behar dira. Hau da, zerrenda bakoitzean, sexu bakoitzaren ordezkartza %40koa izan behar da gutxienez.

Alderdi Popularraren iritziz, arautegi horrek, besteak beste, hurrengo hauek urratzen ditu: gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, kargu publikoak berdintasun-egoeran eskuratzeko eskubidea, sexuaren ondoriozko bereizkeriaren debekua eta alderdi politikoaren jarduerara askea.

Argudioak

Hona hemen errekurtsioa ez onartzeko argudioak, laburtuta:

- Legearen xedea esparru politikoan emakumezkoen gizarte- eta politika-berdintasuna bermatzea da, gaur egun dagoen desoreka hautsiz, emakumezkoek ordezkartza politikoko organoetan parte-hartze txikia dute eta.
- Nazioarteko esparru juridikoak (Nazio Batuek) eta Europar Batasunak emakumezkoek eta gizonezkoek bizitza publikoan modu orekatuan parte hartzeko politikak ezartzeko beharra nabarmendu dute.
- Espainiako Konstituzioaren arabera, botere publikoek pertsonen eta horiek osatzen dituzten taldeen berdintasuna benetakoa eta eragingarria izateko baldintzak ezarri behar dituzte, eta horretarako oztopoak gainditu behar dituzte. Gure Konstituzioaren ezaugarri horrek pertsonen artean sexua dela bide dauden desberdintasunak ezabatzeko politika aktiboari estaldura ematen dio.
- Generoaren araberako zatiketa (gizonezkoak eta emakumezkoak) ezin da parekatu taldeen edo etnia-

LA ABOGACÍA DEL ESTADO SE OPONE AL RECURSO DEL GRUPO POPULAR CONTRA LA LEY DE IGUALDAD

LA NORMATIVA EXIGE QUE LA PARTICIPACIÓN POR SEXO EN LAS LISTAS ELECTORALES SEA COMO MÍNIMO DEL 40%

- La Constitución impone a los poderes públicos establecer condiciones para que la igualdad de las personas y los grupos en que se integran sea real y efectiva.
- El marco jurídico internacional avala la necesidad de adoptar políticas que equilibren la presencia de mujeres y hombres en la vida pública.

La Abogacía del Estado se ha opuesto en nombre del Gobierno al recurso de inconstitucionalidad promovido por el Grupo Parlamentario Popular del Congreso de los Diputados contra la Ley Orgánica para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres (L.O. 3/2007, de 22 de marzo).

El recurso promovido por el Grupo Parlamentario Popular pretende la declaración de nulidad por inconstitucionalidad de los artículos que dicha Ley incorpora a la normativa electoral (Ley Orgánica de Régimen Electoral General). Dichos artículos exigen que las candidaturas electorales para las elecciones generales, europeas, autonómicas y locales sean equilibradas, de forma que en el conjunto de la lista cada uno de los sexos suponga como mínimo el 40%.

El Grupo Popular alega que dicha normativa vulnera, entre otros, el derecho de participación en asuntos públicos, el derecho de acceso en condiciones de igualdad a los cargos públicos, la prohibición de discriminación por razón de sexo y la libre actividad de los partidos políticos.

Argumentos

Los argumentos de oposición al recurso son, en resumen, los siguientes:

- La Ley tiene por objeto garantizar en el ámbito político la igualdad social y política de las mujeres, rompiendo el desequilibrio hoy existente que se refleja en su baja participación en los órganos de representación política.
- El marco jurídico-internacional (Naciones Unidas) y el de la Unión Europea ponen de manifiesto la necesidad de adoptar políticas que equilibren la presencia de mujeres y hombres en la vida pública.
- La Constitución española impone a los poderes públicos establecer condiciones para que la igualdad de las personas y de los grupos en que se integran sea real y efectiva, removiendo los obstáculos que se opongan a ello. Esta característica de nuestra Constitución se entiende que da cobertura a una política activa de eliminación de diferencias entre personas por razón de su sexo.
- Se considera que la división de género (masculino y femenino) no es equiparable a cualquier otra división

de grupo o etnia. El establecimiento de una presencia equilibrada de la mujer en la vida pública no tiene por objeto que haya una representación electoral diferenciada de mujeres como portadoras de ideología o de intereses propios y distintos, sino incrementar su igualdad de trato en todo el arco de convicciones y ofertas políticas, promoviendo así una sociedad más justa e integrada en su conjunto.

La reforma de la legislación electoral se hace con absoluto respeto al principio de igualdad del artículo 14 CE y al derecho de participación que consagra el artículo 23 CE, ofreciendo y garantizando un tratamiento parejo a las dos mitades sociales -masculina y femenina- en la composición de los órganos de representación política, que trae como consecuencia el beneficiar al grupo social infrarrepresentado (mujeres) por la práctica social o por arraigos históricos.

EL MINISTERIO DE JUSTICIA IMPLANTA UN NUEVO MODELO NORMALIZADO DE SOLICITUDES QUE AGILIZARÁ LOS TRÁMITES A LOS CIUDADANOS

- Las nuevas instancias podrán ser extraídas de la página web del Ministerio (www.ministeriodejusticia.es).
- El usuario no tendrá que aportar documentos suplementarios a un trámite, sino que el propio Ministerio asume la comprobación de los datos que ya obren su poder.
- Las solicitudes más frecuentes que se beneficiarán de esta medida son las de nacionalidad por residencia o la cancelación de antecedentes penales.

El Ministerio de Justicia aprobó a finales de julio diversos modelos normalizados de solicitudes ante este organismo con el fin de agilizar los trámites al conjunto de los ciudadanos. Las nuevas instancias, que se ajustan a la cooficialidad lingüística del país, con versiones en castellano, catalán, gallego y euskera, podrán ser gratuitamente descargadas de la propia página web del Ministerio, con el importante ahorro de tiempo que ello conlleva.

Un aspecto novedoso de esta resolución, publicada en el BOE del pasado miércoles 25 de julio, es que los usuarios ya no tendrán que adjuntar otros documentos suplementarios para formular una solicitud (como, por ejemplo, el certificado de antecedentes penales), sino que el propio Ministerio asume la comprobación de esos otros datos que ya obren en su poder. Se trata así de ahorrar al ciudadano desplazamientos innecesarios, ahondando en el modelo de Administración telemática de la Justicia, con la consiguiente agilización y modernización de los trámites.



ren araberako beste edozein zatiketarekin. Emakumezkoak bizitza publikoan modu orekatuan egoteak ez du esan nahi hauteskundeetan emakumezkoek ideologia edo interes bereziak defendatu behar dituztenik, emakumezko horien tratua berdintasuna areagotu nahi da iritziz eta eskaintza politikoa guztietan, horrela gizarte bidezko eta osatuagoa sustatuko da eta.

Hauteskunde-legeriaren eraldaketa EKren 14. artikuluko berdintasun-printzipioa eta EKren 23. artikuluko partaidetza-eskubidea erabat errespetatuz egin da. Ordezkaritza politikoa duten organoen eraketan gizarteko bi erdiei -gizonezkoak eta emakumezkoak- pareko tratamendua eskaini eta bermatzen zaie. Horren ondorioz, gizarte-eginerengatik edo ohitura historikoengatik ordezkaritza gutxien duen taldeak (emakumezkoak) onurak lortzen ditu.

JUSTIZIA MINISTERIOAK ESKAEREN EREDU NORMALIZATU BERRIA EZARRI DU, HERRITARREI IZAPIDEAK BIZKORTZEKO

- Eskabide berriak Ministerioko web orritik atera daitezke (www.ministeriodejusticia.es).
- Erabiltzaileak ez ditu agiri osagarriak gehitu behar izapide bakoitzean. Ministerioak berak egiaztatuko ditu bere esku dauden datuak.
- Neurri horrek, batez ere, eskaera hauei egingo die mesede: bizilekuaren ondoriozko naziotasuna eta zigor-aurrekariak ezeztatzea.

Justizia Ministerioak uztailearen amaieran eskaeren zenbait eredu normalizatu onetsi zituen, herritarrei izapideak bizkortzeko asmoz. Eskabide guztietan herrialdeko hizkuntza-koofizialtasuna errespetatu da, eta gaztelaniazko, katalanezko, galizierazko eta euskarazko bertsioak Ministerioko web orrialdetik doan deskargatu daitezke. Modu horretan, denbora asko aurreztu ahal izango da.

bora asko aurreztu ahal izango da.

Ebazpen hori joan den uztailearen 25ean, asteazkena, argitaratu zen EAOn. Ebazpenak dakarren berritasun bat ahuxe da: erabiltzaileek ez dute agiri osagarriak gehitu behar eskaera bat egiteko (esaterako, zigor-aurrekariaren ziurtagiria), Ministerioak berak egiaztatuko baititu bere esku dauden datu horiek guztiak. Horrela, herritarrek alferrikako joan-etorriak egitea saihestu eta Justiziaren administrazio telematikoaren eredia sakonduko da. Aldi berean, izapideak bizkortu eta modernizatu egingo dira.

EUSKARA TEKNIKO JURIDIKOARI BURUZKO IKASTAROA

Aurtengo apirila, maiatza eta ekainean, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetako egoitzetan, *Euskara Juridikoa Lantzeko Ikastaroa* eskaini zaie abokatu euskaldunei. Ikastaroa Legelarien Euskal Kontseiluak antolatu eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren laguntzarekin burutu da.

Ikastaroa hiru orduko lan-saioetan gauzatu zen, hamar astean zehar. Lehenengo bost lan-saioez Cesar Gallastegi arduratu zen; Cesar Gallastegi Agerkari honen eta Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko aditua da euskarazko kontuetan; gainera, Deustuko Unibertsitatean euskara juridikoko eskolez arduratzen da. Bigarren zatian, azken bost lan-saioetan, Uzeiko kide den Leire Zenarruzabeitia aritu zen.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA BATZORDEA

2006 EKITALDIKO MEMORIA

1999. urtetik ohikoa den moduan, Elkargoak aurrekontuaren %1 nazioarteko lankidetzara bideratu du, bai eduki juridikoa duten proiektuetara, bai beste herrialde batzuetan abokatutzak babestu behar dituen printzipioak defendatzen dituzten talde edo erakundeetara.

Horretarako, Gobernu Batzordeak proiektu-eskaeren aldi bat ireki zuen, apirilaren 24ko 19etan amaitu zena. Hiru erakunde aurkeztu ziren, eta horietako bakoitzak proiektu bat ekarri zuen. Batzordeko kideek proiektuak zehatz aztertu zituzten, eta aurkeztutako proiektuen arduradunekin elkarrizketak eta bilerak egin zituzten informazio gehiago biltzeko.

Deialdia, azken urteetan egiten den moduan, eta Gobernu kanpoko Erakundeen barruan zabalkunde al bait handiena izan dezan, Euskadiko GKEen Koordinakundera igorri zen.

Batzordeko kideek proiektu guztiak aztertu zituzten, eta Gobernu Batzordeari diru-laguntzak proposatzeko erabiliko ziren hautaketa-irizpideak ezarri zituzten.

Diru-laguntzak banatzeko proposamena egiteko erabili ziren irizpideek oinarritzko printzipio bat dute oinarri, hain zuzen ere, beste herrialde batzuetan xede berberak erdietsi nahi dituzten elkartei eta erakundeei laguntza ematea: abokatutzaren eginkizunak babestea eta giza eskubideak oro har defendatzea; helburu orokor edo zehatzei dagokienez abokatuen partaidetza duten proiektuak babestea, hala nola, abokatuak aholkuak eta prestakuntza ematen dituzten proiektuak; inguru istilutsuetan edo erakundeen laguntzarik ez duten inguruetan garatzen diren proiektuak bultzatzea; proiektuei diru-laguntzak ematea, bideragarriak izan daitezkeen, eskatutako kopuru osoa estali ez arren

CURSO SOBRE EUSKERA JURÍDICO-TÉCNICO

